



KALITATE POLITIKA

Enpresaren Misioa edo Xedea honako hau da:

*Ortzadar enpresa pribatua **DA**, askea, giza-arduraduna eta ekonomikoki jasangarria.*

*Ortzadarrek gizarte, kultura eta ingurumen arloko esku-hartze, heziketa, sentsibilizazio eta parte-hartzearen prozesuen diseinu eta garapena du **HELBURU**, gizarte jasangarriagoa lortzearen.*

*Ortzadarrek Administrazio publiko, giza-ardura korporatibodun enpresa pribatu eta hirugarren arloko erakunde**ETARAKO** egiten du lan. Bere enpresa proiektua bezeroen beharrei irtenbide berritzaileak bilatzean datza, beti ere etengabeko hobekuntzari eta erakundearen langileen garapenari begira. Beraz, bezeroekiko elkarlan zuzena eta balore ekarpenean aurkitzen du bere **IZATEKO ARRAZOIA**.*

Ortzadar SL enpresak kalitate-politikaren eta ingurumen-politikaren printzipio orokorrak zehaztu ditu. Politika hori helburuak zehazteko eta berrikusteko eta bere zuzendaritza estragikoa bermatzeko erreferentzia-esparrua da.

Beraz, honako printzipio hauek geure egingo ditugu:

1. Gure bezeroei beharrezkoa den sormena eta berrikuntza eskaintzea, eta gure lanbide-esperientzian eta sektorearen ikuspegi bateratuan oinarritutako neurrirako soluzioak aplikatzea.
2. Gure zerbitzu eta programen garapenaren etengabeko jarraipena egitea, gure bezeroen gogobetetzea eta leialtasuna lortzeko.
3. Gure kalitate-sistema osatzen duten prozesu guzti-guztiak batera hobetzea.

4. Taldeko lana egitea, eta bezeroei arlo bakoitzeko azken joerak eskaintzeko lankidetzaren, portaera arduratsu eta iraunkorraren, parte-hartzearen eta etengabeko hobekuntzaren aldeko jarrerak garatzea.
5. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzea, eta enpresaren estrategia eta zerbitzu guztietan, baita kudeaketan ere, genero-ikuspegia txertatzea, zeharkako moduan.
6. Gure erakundearen eta gizartearen ohiko funtzionamenduan ingurumen-iraunkortasuneko irizpideak sustatzea.
7. Erakundearen eremu guztietan hizkuntza-eskubideak bermatzea, bai lan-harremanetan, bai herritarrentzako zerbitzuetan, euskararen erabilera normalizatzen laguntzearen.

ORTZADAR SL enpresaren Zuzendaritzak, printzipio horiek gauzatzeko asmoz, honako konpromiso hauek hartu ditu: bezeroaren betekizunak betetzeko konpromisoa, legezko helburuak eta arauzkoak betetzeko, kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistemaren eraginkortasuna etengabe hobetzeko konpromisoa, eta kalitate-politika hori eta politika horren kudeaketa-printzipioak betetzeko eskura dituen beharrezko baliabide guztiak eskaintzeko konpromisoa.

Bilbo, 2017 ko otsailaren 21a



Stua. Jesús Angel Quintana Vivanco